

EDITORIALA

Utzi bakean

Egoera politikoaren baitan, aldiro-aldiro ustekabeak harrapatzen gaitu berri madarikaturen batekin. Harridura gaitasuna honezkero gainezka beharko genukeen arren, aurreneko mementoan ezustea sortzen digu poliziaren edozein sarekadak, are eta gehiago darabilten bitartekoan parafernalia guztia kontutan harturik. Zerrenda luzeari azkenekoa gehitu behar zaio, berriki guarda zibilek Euskal Preso Politikoen Kolektiboarentzat bitartekari lanak egiten duten hainbat pertsona eta presoen abokatu gisa dihardutenak atxilotu baitituzte.

Normalizazio politikorako aurre-rapauso nabarmenak ematen ari diren unetan –horien artean kolektibo honek egin duen adierazpena eta ekitaldi publikoa–, betiko indarrek prozesu hori indarrez zapuzten saiatzen dira behin eta berriro. Judikatura erabileraren indarra, hedabide gehienek kontrolarena, poliziarena eta, noski, aginte politiko itsuarenaren indarrak biltzen dira atxilotze agindu bidegabeak gauzatzeko. Euskal Herriak bakea eta normalizazioa behar du eta honelako erabakiek bide hori eragotzi baino ez dute egingen. Dirudi elkarrizketa bideari, eragile batzuen aldebakarreko erabakiei eta normalizazioari beldur diotela estatuan, nonbait atarramentu gutxi aterako dutelakoan baitaude eta.

Denbora asko daramagu herri honek bizi duen gatazkaren konponbide eta soluzioen bila. Ez da batere zilegia ezta justiziazkoa ere, norabide horretan edozein urratsa ematen dela, gurrupilari galgak jarri eta oztopoak gailentzea denen gainera. Era guztietako nahikotxo sufrimendua eragin du gatazkak oraingo prozesuaren itxaropenak amildegira botatzeko. Horretan, aipaturiko estatuko indarren erantzukizuna itzela da, ez bakarria, baina bai lehenetakoa. Erabaki politikoen bultzadaz, bitarteko guztiak erabilia, egun estatua da trabarik nabarmenena bakea eta normalizazioa eskura izateko. Herri honek behar du, merezi du, urtetako sufrikariotik irten eta konponbidea topatu.

Bide horretan borondate irmoa eta nahia erakutsi duen herriak ez du behar modu honetako estatuaren presentziarik. Erabakia dugu gure bidea egitea. Utzi gaitzela bakean!

Joseba Villarreak, Txema Laisekak, Eustakio Urangak eta Leire Txakartegik urte honetako erronka nagusiak aztertzen dituzte

2014: ERRONKEZ BETETAKO URTEA

Langile-klaseak une gogorak bizi ditu. Testuinguru honetan Batzorde Eragileko kide Joseba Villarreak, Txema Laisekak, Eustakio Urangak eta Leire Txakartegik ELA 2014. urterako dituen erronkak aztertzen dituzte. Guztiak bat datoz abagunearen zailtasunak azpimarratzeko orduan, baina ziur daude ELA prest dagoela erronkei aurre egiteko.

Joseba Villarreal, negoziazio kolektiboko arduraduna
“EZ DUGU LAN-BALDINTZEN OKERTZEA SUPOSATUKO DUEN HITZARMENIK ONARTUKO”

“Azken erreforma onartu zenean argi adierazi genuen patronalaren helburua negoziazio kolektiboa hankaz gora jartzea zela. 2014. urtea hasi berri den honetan esan dezakegu euren helburua lortu dutela, hankaz gora baitago. Patronalak negoziazio kolektiboa blokeatu du, soilik eduki kaxkarrak dituzten akordioak sinatzeko prest daude: soldaten izoztea, lanaldiaren handitzea, erreformari aurre egingo dion inolako elementu eza... Azken finean, patronala bere baliabide guztiak erabiltzen ari da lan erreformak eskaintzen dizkion abantailaz baliatzeko”.

Hala mintzo da Joseba Villarreal egungo abagunea aztertzeko orduan. “Hori da negoziazio kolektiboaren egoera, baina ez soilik Euskal Herrian, Mirandatik behera ere. Aldea zera da: Mirandatik behera CCOO patronalari egozten dio blokeo egoeraren ardura; hemen, berriz, ELAri egozten dio. Eta hori ez da zilegia”.

Egoera honen aurrean ELAko negoziazio kolektiboko arduradunak argi du zein izan behar den gure mezua. “Prest gaudu eduki onak –KPlaren baitango soldata igoerak, ultraaktibitate mugagabea, lan erreformatik babesteko klausulak...– jasotzen dituzten akordioak negoziatzeko, makina bat aldiz frogatu dugun bezala. Edukiekin batera, noski, hitzarmen lotesleak bilatzen ditugu, sinatutakoa beteko denaren bermea izateko. Kontua da ez gaudela prest lan-kostuak murriztea eta lan-baldintzak okertzea helburu duten hitzarmenak sinatzeko. Hori oso argi utzi nahi dugu. Hitzarmenak edozein preziotan sinatu nahi dituen horrek sinatu ditzala; ELA ez dago prest”.

Villarreak nabarmentzen duenez orain arte borroka-esparruen bila aritu gara, eta etorkizunean ere bide beretik jarraituko dugula dio. “Sektore bakoitzak behar dituen alternatiba propioen bila egin behar dugu lan. Enpresa-hitzarmenak egin ditzakegun lekuetan horiek bilatuko ditugu, azken lan-erreformaren ostean horiek direlako lehenesten diren hitzarmenak. Sektoreko hitzarmenak oraindik ere erreferentzia ukaezinak diren tokietan sektore hitzarmen onak lantzen eta negoziatzen jarraituko dugu. Horretarako hori ahalbideratuko duten patronal berriak bilatu behar baditugu bilatuko ditugu”.

“Administrazio Publikoko azpikontrata guztietan –jarraitzen du– berriki martxan jarri dugun Legegintzako Herri Ekimenak jasotzen dituen eskakizunak betetzen saiatuko gara. Gainera Administrazio Publikoan negoziazio kolektiboa berreskuratzeko



ko ahaleginak egingo ditugu. Aipatu duguna gutxi balitz, beste edozein aukera aurreikusten dugu, baldin eta gure helburu nagusia betetzeko balio badu: lan-baldintzak hobetzea”.

Lan eta negoziazio kolektiboaren azken erreforma onartu zenean ELA argi utzi zuen guztia emango zuela erreforma lan zentroetatik kanpo uzteko. Villarreak berresten duenez 2014 urte honetan konpromiso hori ELAren lehentasuna izango da. “Horretarako ELA gure borondate irmoena azaldu nahi dugu. Ezinbestekoa da mobilizazio gaitasuna areagotzea. Horretarako lan-zentroetan antolakuntza hobetu beharra dago. Antolakuntza eta afiliazioa. Ez dago beste biderik”.

“Estamos dispuestos a negociar acuerdos con buenos contenidos: subidas referenciadas al IPC, ultraactividad, cláusulas que blinden ante la reforma laboral y de negociación colectiva... Lo que no estamos dispuestos a negociar son convenios que supongan un mayor empobrecimiento de la clase trabajadora”

Lankidetu!

Txema Laiseka, responsable de elecciones sindicales

“QUEREMOS MANTENER LA REPRESENTATIVIDAD EN EL PERIODO CONCENTRADO”



“En una situación de crisis y de destrucción de empleo brutal como la que ha sufrido la clase trabajadora en los últimos años, mantener nuestra representatividad actual (40% en la CAPV y 21% en Navarra en términos redondos) es ganar”. Así de taxativo se

muestra Txema Laiseka al ser cuestionado sobre el reto que se plantea ELA en materia de representatividad a 8 meses vista del pistoletazo de salida de un nuevo periodo concentrado de elecciones sindicales.

Laiseka destaca la dificultad de lograr estas cifras en un sindicalismo a cuatro, pero anima al conjunto de la militancia a implicarse al 100% en el reto, porque es mucho lo que está en juego. “En un contexto en el que la empresa se ha convertido en el único ámbito en el que podemos garantizar nuestros derechos laborales es evidente que necesitamos contar con empresas sindicalizadas, que tenemos que ser capaces de presentar candidaturas en el mayor número de empresas posibles, y que esos candidatos y candidatas tienen que ser personas comprometidas, dispuestas a plantar cara y liderar futuras luchas”, ha explicado. “No sólo importa el número de delegados/as

que logremos; la calidad, el nivel de conciencia sindical de esos delegados/as va a ser más decisivo que nunca”, remarca.

A pesar de las dificultades, el responsable de elecciones sindicales de ELA se muestra optimista, ya que cree que la crisis está sirviendo para retratar a la perfección el modelo sindical de ELA. “Yo creo que a nadie se le escapa que ELA está con los trabajadores/as. Hemos liderado muchas luchas: unas las hemos ganado; otras, perdido, pero siempre con honestidad. Hemos evitado cierres de empresas, como en Marie Brizard. En otros casos no ha sido posible, pero hemos logrado unas condiciones de salida de la gente muy por encima de las ofertadas inicialmente, como en Perot o Formica. Esta crisis ha servido, entre otras muchas cosas, para visibilizar que ELA tienen un modelo alternativo de contra-poder, que no se casa con nadie a nivel político y que

toma sus propias decisiones en función de los intereses de su gente, y estoy convencido de que los trabajadores/as lo van a valorar como se merece. En esta crisis sin parangón el modelo de ELA ha quedado en evidencia, en positivo, y se demuestra más necesario que nunca”.

Laiseka no se olvida, ni por un momento, de la situación de desprotección en la que la reforma de la negociación colectiva ha dejado a los trabajadores/as de las PYMES, fundamentalmente, por lo que les hace un llamamiento a organizarse. “Que sepan que van a tener todo el apoyo del sindicato”, insiste. El responsable de elecciones sindicales termina haciendo un llamamiento a la militancia del sindicato a seguir trabajando, empresa por empresa, buscando los mejores candidatos y candidatas, que seguro escribirán la historia del sindicato en los años futuros.

Eustakio Uranga, responsable de organización

“AFILIACIÓN Y ORGANIZACIÓN, NO HAY OTRO CAMINO”

El pasado julio ELA realizó importantes cambios organizativos con el objetivo de adecuar mejor la estructura del sindicato a la actual coyuntura socio-laboral. Eustakio Uranga, responsable de organización, considera que este 2014 nos tiene que servir para desarrollar el Plan de Organización en las empresas, centros de trabajo y sectores. “Avanzar en la sindicalización es la única forma de responder a la agresión que supone la reforma laboral y de negociación colectiva. Hay que afiliarse, organizar las secciones sindicales, y en base a ese buen trabajo sindical desarrollar la negociación colectiva. Sin correlación de fuerzas no

podremos hacer frente a esta coyuntura tan adversa para la clase trabajadora”.

Uranga recalca la importancia de afiliarse. “Tenemos que tener más presente que nunca el valor de la afiliación como vía para ganar correlación de fuerzas y poder desarrollar un proyecto sindical autónomo. Además en 2014 tenemos periodo concentrado de elecciones sindicales, y tenemos que planificar bien este trabajo. Solo desde una representación mayoritaria vamos a poder defender nuestros convenios. En este sentido es de máxima importancia tener delegados/as capaces de liderar el proyecto sindical de ELA”.



Leire Txakartegi, langabetuen saileko arduraduna

“LANGABEZIAREN ARAZO LARRIA AGENDA SINDIKALAREN ERDIAN JARRI BEHARRA DAGO”



ELAk aurten ahalegin berezia egingo du langabeziaren arazoa eta horren inguruan sindikatuak egiten dituen eskakizunak gure agendan modu age-

riagoan jartzeko. Izan ere, atal honen arduradun Leire Txakartegik azpimarratzen duen bezala, azken Kongresu Konfederalean parte hartu zuten ordezkariak Langabeen Atala sortzea erabaki zuten aho batez. “Langabeziatasak jasanezinak dira, milaka eta milaka langile daude egoera horretan bazterkeriatik eta pobreziatik gero eta hurbilago. Patronala egoera horretaz baliatzen da langile-jendea mehatxatzeko eta diziplinatzeko. Horregatik, gure asmoa langabeak atal berri horretatik antolatzea da, eta baita gai horrekiko mobilizazio sindikala eta soziala sustatzea ere. Langileria osoaren elkar-tasuna eta inplikazioa areagotu beha-

rra dago, langabeziaren arazoa ez baita soilik mugatzen egoera hori pairatu behar dutenengana”.

Txakartegik argi utzi nahi du sortu berri den atal hau ez dela bitartekaritza-sistema bat, ezta enplegua bilatzen laguntzeko zerbitzua ere. “Ez da beste sindikatu batzuetan dauden ereduak bezalakoa. Gure xedea enplegu politika eraginkorren alde antolatzea eta borrokatzea da. Prozesu honetan eskualde ezberdinetan langabezia dauden militanteengana hurbildu gara. Lan honekin jarraitu behar dugu, militante gune hauek antolatzen eta indartzen”.

Helburu hauek gauzatu asmoz ELAk

hainbat ekimen garatuko ditu. “Langabeziaren arazoa salatu nahi dugu. Baina ez dugu horretan geratu nahi, kanpaina honek ELAren alternatibak zabaldu eta sozializatzeko aukera eman behar digu. Horretarako hainbat material atera ditugu: esku-orriak, kartelak, publikazio ezberdinak... Kanpaina honen barruan urtarilaren 22a mugarrira izango da. Izan ere egun horretan enpleguaren aldeko ekitaldia egingo da Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan”.

“Azkenik, –gaineratzen du Txakartegik–, langabeziaren arazoa jorratzen duten beste eragile sozial batzuekin elkarlana sustatuko dugu”.

● ELA Euskal Herriko Laborantza Ganbararen urtemuga ekitaldian

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak bere IX. urtemuga ospatuko du urtarrilaren 18an Ainhitze-Monjolosen (Lapurdi) duen egoitzan. ELAk ozen txalotu nahi du 2005. urteaz geroztik laborantza herriko eta iraunkorraren alde lanean ari den elkarte honen lana. Bere sorreratik bederatzita urte igaro diren honetan EHLG Ipar Euskal Herriko laborarien artean eta jendartearen inoiz baino hobeto erroturik dago.

● Omenaldia Igor Urrutikoetxeari

Urtarrilaren 18an omenaldia egingo zaio LAB sindikatuko nazioarteko arduradun izandako Igor Urrutikoetxeari bere sorterrian, Lezaman (Bizkaia). Urrutikoetxea azaroaren 28an zendu zen Brasilen izandako istripu batean, kongresu batean parte hartzen ari zela. ELAk bere samina helarazi nahi dio bai Igor Urrutikoetxeari senide eta lagunei zein LAB sindikatuari. Gainera ELAk ordezkari bat bidaliko du Lezamara agur-omenaldian parte hartzera.

● Urtarrilak 29 eta 30, greba Gipuzkoako garbitasunean

ELA, LAB, ESK eta UGT sindikatuak deituta urtarrilak 29 eta 30 greba egunak izango dira Gipuzkoako garbitasunaren alorrean. Langileek 2009. urtetik daramate hitzarmenik gabe, sektoreko patronalek uko egin diotelako lan-baldintzak duinduko dituen inolako akordio negoziatzeaz.

ELAk sektorean duen arduradun Edurne Iriondok salatzen duenez, patronalak lan erreforma baliatu nahi du langileei xantaia egin eta lan-baldintzak are eta gehiago narriatzeko.

Egoera horren aurrean, langileek grebara jotzea beste aukerarik ez dutela izan azpimarratzen du Iriondok.

● Lanuzteak Aernnova Aeroestructuras Alava taldeko lantegietan

Urtarrilaren 8an ordubeteko lanuzteak egin ziren goizeko eta arratsaldeko txandetan Aernnova Aeroestructuras Alava taldeak dituen lantokietan. Erabaki honen helburua otsailetik aurrera zuzendaritzak taldeko 600 langileentzako ezarri nahi duen suspentsio Enplegu Erregulazio Espedientea salatzeko da. ELAk gogor salatu nahi du zuzendaritzak iragarri duen EEEn. Izan ere azken hiru urteotan Arabako lantegietatik hainbat muntaketa-kate eta tresna atera dituzte, deslokalizazio saiakera nabarmen batean. Lan-karga handiak izan arren zuzendaritzak Arabako lantokiak ahuldu nahi ditu.

● Mutualitateei buruzko lege aurreproiektua osasun sistema publikoaren kontrako beste urrats larri bat da

Espainiako Ministro Kontseiluak Gizarte Segurantzako Mutualitateei buruzko Lege Aurreproiektua onartu zuen abenduaren 20an. ELAren ustez erabakia osasun sistema publikoaren kontrako eraso larria da, mutuei botere gehiago eman eta osasun sistema publikoaren pribatizazioan beste urrats bat gauzatzen duelako.

● 2013, urte negargarria enpleguarentzat

Berriki 2013ko langabeziaren datuak ezagutu dira, eta ELAko azterketa bulegoko arduradun Mikel Novalek azpimarratzen duenez negar egiteko modukoak dira. "Datuei erreparatu besterik ez dago. Iragan urteko azken

egunean 218.862 ziren Hego Euskal Herrian langabezia zeuden lagunak, aurreko hilean baino 7.116 gutxiago eta duela urte bat baino 2.165 gutxiago. Honek esan nahi du langabezia tasa %17,1eko dela, EB-28koa baino 6,2 puntu altuagoa. Soilik Kroaziak, Espainiar Estatuak eta Greziak daukate tasa altuagoa".

Novalek langabezia dauden lagunen egoera gogorra salatzen du, langabetuen erdiek ez duelarik inolako langabezia prestaziorik jasotzen. "Hego Euskal Herrian langabezia izena emanda dauden pertsonen %48,8ak ez du inolako langabezia prestaziorik jasotzen. Soilik hirutik batek (%30,6k) jasotzen du kotizaziopeko prestazioa, eta %20,6ak gizarteratze errenta edo subsidioa jasotzen du".

Datu hauek aztertu ostean gizarte politiken arduradunak gogor kritikatu zituzten horiek. "Penagarria da zenbait arduradun politikok giza emergentzia egoera hau begi onez begiratzea langabezia zerbait jaitsi delako. Egoera honetan ezin da esan lana errekuperatzen ari denik, ez eta askoz gutxiagorik ere. Gainera pobrezia eta prekaritatea mugaraino daramaten murrizketa eta erreforma politikak egiten dihardute oraindik ere".

● ELAk Pesa-Bizkaiaiko hauteskundeak irabazi ditu

ELAk emaitza ikusgarriak lortu zituen abenduaren 23an Pesa-Bizkaian izan ziren hauteskundeetan. Gure sindikatuak hamar ordezkari lortu zituen jokoan zeuden hamahiru ordezkarietatik Bizkaibuseko hainbat linea esleitura dauzkan garraio konpainia honetan -gainontzeko hiru delegatuak UGTk eskuratu zituen-. Honek igoera nabarmena suposatzen du; izan ere aurreko

enpresa-komitean ELAk bost ordezkari zituen (aurreko komitea 9 lagunez osatua zegoen).

ELAk Pesa-Bizkaian duen arduradun Iñaki San Andresek argi du hazkunde handi hau gure sindikatuak azken hila-bete luzeetan egindako lan sindikalaren ondorio dela. "Bizkaibuseko gatazkan zehar ELAk izandako lidergoari erantzuten dio; langileek babesa eman diote gatazkan zehar ELAk izandako estrategiari. Honek ere argi uzten du langileek bere partaidetza eta mobilizazioa lan-tresna moduan erabiltzen dituen sindikalismoari babesa ematen diotela, edukirik gabeko elkarriaketa sozialean oinarritutako ereduarekin alderatuta".

San Andresek argi utzi nahi du ELAk duen guztia emango duela langileen babesari erantzuteko. "Pesako langileei eta emandako babesari tamainako erantzuna emateko ahaleginak egiteko konpromisoa hartu nahiko nuke. Udazken hasieran Bizkaibusen izandako gatazkaren ondoren egin diren lehen hauteskundeak dira, eta langileek babesa eman diote gatazka horretan ELAk izandako lidergoari. Emaitza hauekin lehen sindikatu bihurtu gara, ez Pesa-Bizkaian bakarrik, Bizkaibusen osotasunean ere".



ELAk gogor salatzen du EPPK-ko bitartekaritza taldearen aurka egindako polizia operazioa

ESKUBIDE DEMOKRATIKOEN KONTRAKO ERASO BERRIA



Operazioa salatzeko hainbat sindikatuk, alderdik eta gizarte eragilek agerraldia egin zuten urtarrilaren 9an. Irudian ELAko Batzorde Eragileko kide Xabi Anza, sinatzaile guztiek adostutako adierazpena irakurtzen.

Urtarrilaren 8an Guardia Zibilak Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren bitartekaritza taldeko zortzi kide atxilotu zituen. Gainera beste hainbat abokaturen bulegoak miatu zituen, Espainiako Auzitegi Nazionaleko Eloy Velasco epailearen aginduz. ELAk gogor salatu

nahi ditu atxiloteta politiko hauek, eta uneotan preso dauden lagun horiek lehenbailehen askatzea exijitzen du. (Oharra: Astekariaren ale hau urtarrilaren 10eko eguerdian itxi zen).

ELAren ustez operazio honekin Espainiako gobernuak kriminalizatu egin nahi ditu, batetik. presoek eskubideen aldeko lana, eta, bestetik, horiek bermatzen saiatzen diren guztiak ere. Halaber, gurean gartzaren ari den normalizazio politikoko prozesua eta gure gizarteko sektore zabal baten jardun politikoa geldiarazteko borondatea dauka.

Sindikatu honen ustez, operazio honek eskubide demokratikorik oinarritzkoenak urratzen ditu. Zentzu honetan, ELAk ebidentzia bat nabarmendu nahi du: gure herrian normalizazio politikorantz egiten diren aldebakarreko urratsekin pozten ez diren indar baka-rrak PP eta eskuin muturreko beste erakunde satelite batzuk dira.

TANTAZ TANTA EKIMENARI BABESA

Bestalde, ELAk parte hartze aktiboa izan zuen polizia operazio hau salatzeko urtarrilaren 9an eta 10ean antolatutako ekimen ezberdinetan. Gainera, atxilotuak aurretik publiko egin zuen bezala, urtarrilaren 11n Tantzaz Tanta ekimenak deitutako dinamikan parte hartzeko deia berretsi zuen. Izan ere, egun horretan presoek eskubideen aldeko hainbat jardunaldi antolatu zituzten Bilbon.

ELAk bat egin zuen dinamika honekin, eta bertan parte hartzeko deia luzatu zion sindikatuko militantzari. ELAren ustez oso garrantzitsua da inizatiba honen oinarritzko aldarrikapenak babestea eta zabal-tzea: dispertsioaren amaiera, larriki gaixo dauden presoek askatasuna eta Giza Eskubideen Europar Epaitegiko epaiaren berehalako aplikazioa.

ELA exige la inmediata liberación de las personas detenidas en la operación contra interlocutores del EPPK, y denuncia que esta nueva operación vulnera los más fundamentales derechos democráticos

ELA y Bizkaidendak firman el convenio del comercio textil de Bizkaia, superando el bloqueo impuesto por la patronal CECOBI

“UN CONVENIO SECTORIAL CON CONTENIDOS”



En la imagen algunas de las delegadas y delegados de ELA en el sector del comercio textil de Bizkaia. ¡Zorionak por el gran acuerdo logrado!

Con varios meses de retraso, debido a las presiones de la patronal vizcaína CECOBI para que el Gobierno Vasco se posicionara en su contra, el Boletín Oficial del País Vasco ha recogido el convenio del comercio del textil de Bizkaia para el periodo 2008-2013, suscrito por ELA y la patronal Bizkaidendak. Un convenio que posibilita la ultraactividad indefinida y recoge incrementos salariales referenciados al IPC para los cinco años de vigencia del convenio. Marige Fernández y Maricruz Elkoro, responsables del comercio, analizan el acuerdo logrado.

-¿Qué supone este convenio suscrito por ELA y la patronal Bizkaia-dendak?

-En primer lugar, supone un cambio sustancial en el panorama de la negociación colectiva y un nuevo camino a

explorar en otros sectores del comercio y del sector de servicios. Se ha logrado superar el bloqueo que hasta ahora había impuesto la patronal CECOBI, que con su posición trataba de salvaguardar los intereses de los grandes centros comerciales.

El acuerdo recoge importantes mejoras, como la ultraactividad indefinida que prórroga todos los contenidos del convenio, blindándolo así de la reforma laboral. En el capítulo salarial los incrementos son del IPC para los años 2008 y 2009, del 2% para los ejercicios 2011 y 2012 y del 1,5% para el 2013. Además se establece un complemento o plus para las personas que trabajen a partir de las 20:30.

-ELA ha suscrito en solitario el convenio. ¿Por qué?

-Los sindicatos CCOO, UGT y LAB han mantenido una posición muy beligerante en contra del convenio, a pesar de que los contenidos son mejores que los recogidos en otros convenios sectoriales que han suscrito.

Durante meses hemos tenido que soportar patéticos panfletos y discursos sindicales donde, lejos de defender unos contenidos de convenio muy dignos, se han dedicado a dar cobertura a CECOBI, que es quien bloquea la negociación.

Quizás su incapacidad para llevar nuevas iniciativas a las mesas de negociación y la firma de convenios pobres en otros sectores del comercio como el Comercio Alimentación y Comercio en General de Bizkaia explican esa posición.

-La patronal CECOBI, por su parte, ha anunciado que impugnará el convenio.

-Desde que entrara en vigor la reforma laboral hemos venido denunciando la actitud de una patronal –en este caso CECOBI– cada vez más enva-lentonada y que se ha dedicado a bloquear sistemáticamente la negociación de buenos contenidos en los convenios.

Cinco años de bloqueo en las negociaciones que han hecho imposible llegar a un acuerdo. Les hemos quitado su máscara y hemos demostrado que los pequeños comercios están dispuestos a negociar y que ellos sólo compar-ten los intereses de las grandes superficies comerciales.

Además, en este proceso negociador con una nueva patronal, en este caso Bizkaidendak, se ha puesto sobre

la mesa el tema de la representatividad otorgada a la patronal.

Durante las últimas semanas CECOBI ha presionado al Departamento de Trabajo para que no diera validez oficial al convenio, pero el pasado 7 de enero se publicó finalmente en el Boletín Oficial. En este sentido valoramos positivamente la actuación del Departamento de Trabajo.

-Este acuerdo supone abrir un precedente que sirve también para otros sectores dentro del comercio.

-Así es. Ahí está el ejemplo del convenio para el comercio de piel y calzado. Tras más de cinco años de negociación, el 30 de septiembre finalizó la prórroga que se había pactado.

A partir de ahí, algunas empresas empezaron a comunicar a las trabajadoras que, dada la finalización del convenio y a falta de nuevo acuerdo, procedían a bajarles las condiciones de trabajo.

Ante esta situación desde ELA, con mayoría absoluta en este ámbito, convocamos al resto de sindicatos con representación en el sector (LAB, CCOO y UGT) y a las dos patronales existentes a día de hoy (Bizkaidendak y CECOBI) a una nueva constitución de mesa de negociación donde todas las partes con legitimación participen.

Al final el 18 de diciembre se constituyó la mesa de negociación. En el comercio, si estás afiliada a ELA, mejor. Y es evidente que las trabajadoras de este sector también están de acuerdo con esta frase, no en vano ELA tiene mayoría absoluta.

www.ela-sindikaturua.org / @ELAsindikaturua / ELA-Facebook

ELA  **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikaturua.org

**Franqueo concertado
nº 08/207**